



**SANTO TOMAS
LIZEOA**

Gure bezero bakoitzak, gure kuota ordaindu beharko du. Alegia, 150€ kontsulta bakoitzarengatik, alabaina gure zerbitzu gehigarriak eskaintzeagatik prezioak asko igoko dira. Esate baterako, garraioa. Honek 7500€ inguruko kostu gehigarria edukiko du. Ondorioz, hasierako prezio finkoa izango da eta gainera kostu aldakorrak egongo dira, zerbitzu gehiago eskatzen badira. Gure bezeroak enpresa dirudunen jabe direnez ez dute inolako arazorik edukiko honelako zerbitzuak prezio hauengatik ordaintzeko.

Gure enpresak hainbat ordaintzeko era onartuko ditu. Ordainketa bakarrekoak edota ordainketa errepikarriak. Honi esker diru-sarrerak modu ezberdinetan lortuko ditugu. Eta enpresak aniztasun handia edukiko du.



Bestalde, diru-sarrera hauek sortzeko hainbat modu edukiko ditugu. Hasteko, publizitatea erabiliko dugu. Instagramen, Youtuben, telebistan, irratian eta egunkarian agertuko dira gure iragarkiak. Honela, mota askotako jendeak ikusi dezake. Gainera, gure zerbitzua kontratatzen duten lehen 125 bezeroak mugikor berri baten zozketan parte hartzeko aukera izango dute. Diru-sarrerak lortzeko azken metodoa enpresaren aktiboen salmenta izango da. Gure bulegoetan erabili gabe dauden aktiboen elementuak salmentan jarriko ditugu, eta horrela dirua irabazteko aukera izango dugu.

Azkenik, enpresa sortzean ez dugu diru askorik inbertitu behar hirian zehar konexio onak ditugulako, eta hauetako pertsona askok laguntzeko prest daudelako.